

" hamabi hilabete...
" hamabi hilabete...
hamabi salaketa"
hamabi salaketa"

TESTUINGURUA

Kanpaina honen bidez, jendea sentsibilizatu nahi da, gutxitasun fisikoa duten pertsonen eragiten dieten hainbat gairi buruz: enplegua, irisgarritasuna, parte-hartzea...

Horrela, **HAMABI HILABETE... HAMABI SALAKETA** lelopean, elkarteak publiko egingo du gutxitasun fisikoa duten pertsonak desabantaila sozialak dauzkatela hainbat alorretan:

- aisialdian,
- garraioan,
- enpleguan,
- prestakuntzan,
- osasunean,
- zerbitzuetan
- eta abarretan

Kanpainari izen hori eman zaio, komunikabide batean antzeko izenarekin egindako kanpaina batek oihartzun handia izan zuelako. Gure kanpainak, agian, ez ditu "beteko" hamabi hilabeteak, baina **EGOERA GARRANTZITSU BAT... SALAKETA BATEKIN** lotu nahi du. Izenak, beraz, ez du hainbeste axola; garrantzitsuena da gizarteari jakinaraztea errealitate asko daudela ezagutarazteko, eta eguneroko bizitzan (eta hilabeteetakoan) ikus daitezkeela.

HELBURUA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen eguneroko bizitzako hainbat alorretan bizi duten errealitatea hiritarrei erakustea, elkartearen borroka eta aldarrikapenak uler ditzaten, eta, bide batez, haien laguntza lortzeko.

Idea filosofikoen diskurtsotik harago, gutxitasun fisikoa duten pertsonen errealitatea agerian jartzea da helburua... errealitate horretatik, *eginaren egínez* elkartek eskaintzen dituen aukerak iritzi publikoari jakinarazteko, eta, bere ardurak betez, administrazio publikoei egiten dizkien planteamenduen berri emateko.

METODOLOGIA

✚ Gertakari jakin batetik abiatu, gai bakoitzeko errealitate bat erakusteko: gertakari hori agerian jartzeak eta islatzeak errealitate osoa salatze bidea ematen du (adibidea: erakunde publiko baten eraikin jakin batek irisgarritasunik ez badu, horrek bide ematen du zentro publiko gehienetara sartzeko ezintasunak daudela azaltzeko).

👉 Nola egin:

- ❑ Agerraldi bat egin daiteke komunikabideen aurrean;
- ❑ Erregistroan kexa jar daiteke;
- ❑ Salaketa judiziala ere egin daiteke;
- ❑ Kale-antzezpena
- ❑ eta abar

👉 Errealitate horrek errealitatearen datu jakin batzuetan, erakunde publikoen azterketetan (Arartekoa, Sindikoa, estatistika-azterketak...) izango du sostengua.

HIRITARREN INPLIKAZIOA ETA PARTE HARTZEKO DEIA

Komunikabideek kanpaina honetan parte hartzea eta kanpaina komunikabideetan azaltzea nahi dugu, taldearen aldarrikapenen berri emanez, hiritarren parte baten aldarrikapenak iritzi publikora zabaltzeko, gutxitasun fisikoa duten pertsonen irudi positiboa emateko, kontuan hartuta komunikabideak tresna garrantzitsuak direla hiritarregana heltzeko.

Azken finean, gure elkartearen antzekoek, funtsean aldarrikapenak egiten lan egiten duten elkarteek, jardueraren oinarrian dituzten funtsezko hiru ardatzak ezagutarazi nahi dira kanpainaren bitartez:

✳️ **Gaien aurkezpena egitea dagokion administrazio publikoan** (Eusko Jurlaritzza, Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta lurraldeko beste udal batzuk...), taldearen premietarako eta arazoetarako konponbideak bila ditzaten eskatzeko.

✳️ **Koordinazioa eta elkarlana egitea gure gizarteko hainbat gizarte-eragilerekin** (gizarte-arloko eragileekin, sindikatuekin, auzoetako eragileekin, hiritarrekin...), aipatutako arazoen alternatibak eta iradokizunak aldarrikatzeko eta azaltzeko.

✳️ **Talde bezala bizi ditugun egoerak hiritarrei azaltzea eta gure aldarrikapenen berri ematea**, eta elkartasunera eta aukera-berdintasunaren aldeko borrokara deitzea.

**Horregatik guztiagatik jakinaraziko diegu hiritarrei,
HAMABI HILABETE... HAMABI SALAKETA kanpainan.**